

# Jalgi hadi plazara!

Hona hemen gaiari eta sortuko duzun testuari lotutako zenbait proposamen zeure kabuz egiteko. Gogoratu ikasprozesuan aurrera egiteko oso garrantzitsua dela **zure euskara plazara ateratzea!**

## JALGI HADI PLAZARA!

### Zeure ingurua aprobetxatuta:

- ✓ Ba al duzu etxean, auzoan edo inguruan hiri-baratzerik edo lorategi bertikalik? Bada, ezagutu egin nahi dugu! **Graba ezazu** bideo labur bat telefonoarekin, erakutsi non dagoen, nolakoa den, nork erabiltzen duen, zertarako erabiltzen duzun/duten, zer landatzen duzun/duten, zenbat denbora ematen duzun/duten hura zaintzen... **Eraman** ikasgelara, eta **erakutsi** ikaskideei.

### Internet aprobetxatuta:

- ✓ Lan-unitatean, luze eta zabal hitz egingo dugu hiri-baratzeez, baina ba al dakizu zenbat eta zein diren Gasteizko hiri-baratzeak? **Sartu [helbide honetan](#), irakurri** zein diren, eta **komentatu ikaskide batekin eskolan**: ba al zenekiten hainbeste zirela?, denak ezagutzen dituzue?, baten bat bisitatu duzue?... Baietz baten bat zure etxetik hurbil egon! Joan hara, eta **saiatu** hango baten batekin hitz egiten: noiz sortu zuten, nola, zergatik... Informazioa **jaso**, eta hori ere **komentatu ikaskide batekin eskolan**.
- ✓ Ba al dakizu zer den [Igartubeiti](#) baserria? **Bisita ezazu** haren inguruko informazioa dakarren web-orria, eta **komentatu ikaskide batekin eskolan**.
- ✓ **Jakoba Errekondo** agronomo eta paisajista ezaguna da. Hainbat hedabidetan hartzen du parte, landare, lore, zuhaitz eta antzeko gaien inguruan. **Bisita ezazu [web-orria](#)**, eta **irakur itzazu** jendeak hari egindako galderak, baita Jakobaren erantzunak ere. **Aukera ezazu** bat, **eraman** ikasgelara, eta **komentatu ikaskideekin**. Eta, jakina!, zalantzarik izanez gero edota animatuz gero, **idatz iezaiozu** zuk zeuk galdera bat! Ea zer erantzuten dizun!
- ✓ Geratu ikaskide batekin, eta banatu zuen artean **EITBko bi saio hauek (bata bideoa da; bestea, berriz, audioa)**. Ikus edo entzun itzazue, nork berea, egin ezazue laburpentxo, eta **azal iezaiozue elkarri**.
  - [Food computer \(Teknopolis saioa\)](#). Hiri-baratzeen etorkizunari begira jartzen gaitu. Hona hemen helbidea:
  - [Hurbilen ditugun baratzeak balkoietakoak dira \(Euskadi Irratiko Landaberri saioa\)](#). Hiri-baratzeen munduan, zuri guztiak ez dira elurrak...